

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

233

AGINDUA, 2019ko abenduaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, goi mailako kirolaren ebaluazio batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorriz, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, goi Mailako kirolaren ebaluazio batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emando die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, balorazio batzordeak 2019ko azaroaren 27an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi mailako kirolaren ebaluazio batzordearen proposamena ikusita, eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epeen, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019koa abenduaren 18a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2020ko urtarrilaren 20a, astelehena

ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Aramburu Amorena, Juan Jose	723/19/D	Tiroa	Kirolaria
Aranburu Azpiazu, Aritz	750/19/D	Surfa	Kirolaria
Bordagaray Martija, Irati	752/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Canales Bilbabo, Leticia	749/19/D	Surfa	Kirolaria
Carrera Vazquez, Pablo Abensaid	717/19/D	Tiroa	Kirolaria
Chourraut Yurramendi, Maialen	730/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Crespo Sistiaga, Joan	731/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
De Velasco Vazquez, Xabier	725/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gaminde Sertutxa Aimar	746/19/D	Herri Kirolak	Kirolaria
García Córdoba, Lucía	729/19/D	Futbola	Kirolaria
García Perez, Nahikari	720/19/D	Futbola	Kirolaria
García Vez, Gontzal	721/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
García Vez, Irantz	722/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Gonzalez Marfull, Aitzpea	740/19/D	Arrauna	Kirolaria
Iturria Alzate, Ane	726/19/D	Mendia	Kirolaria
Larrañaga Olano, Iker	751/19/D	Motoziklismoa	Kirolaria
Lazcano Guimerans, Maria Begoña	739/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Martin Goenaga, Ignacio Amadeo	727/19/D	Errugbia	Kirolaria
Moreno Benito, Jon	736/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Nabaskues Lasheras, Unai	719/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Olazabal Sanchez, Klara	737/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Osa Irureta, Irati	738/19/D	Piraguismoa	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Oihane	741/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Quincoces Altuna, Nahia	716/19/D	Mendia	Kirolaria
Sastre Sanchez-Vallejo, Iker	732/19/D	Mahai Tenisa	Kirolaria
Unanue Zabala, Mikel	735/19/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Zamarripa Velez de Guevara, Enara	745/19/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Altuna Lizarraga, Ander	109/19/T	Txirrindularitza	Teknikaria
Etxaniz Peña, Xabier	110/19/T	Piraguismoa	Teknikaria
Fernandez Aizpuru, Ander	108/19/T	Piraguismoa	Teknikaria
Otaegi Garmendia, Oihane	111/19/T	Neguko kirolak	Teknikaria
Aguirre Larrañaga, Maria Izaskun	15/19/J	Kirol egokitua	Epailea
Martinez Barredo, Ivan	16/19/J	Tenisa	Epailea